

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALETXEA

#### LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

#### Plangintzarako eta Hirigintza Antolakuntza Gauzatzeko Zerbitzua

**Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko Udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean egin nahi den egiturazko xedapen aldaketa bati, Gasteizko 37 poligonoko (Mercedes Benz) 158 eta 166 lursailen hirigintza-parametroak birdefinitzeko**

Hauxe erabaki zuen Udalbatzak 2021eko azaroaren 4an egindako aparteko eta premiazko bilkuran:

1. Hasierako onespena ematea Gasteizko 37 poligonoko (Mercedes Benz) 158 eta 166 lursailen hirigintza-parametroak birdefinitzeko Gasteizko Udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean (HAPO) egin nahi den egiturazko xedapen aldaketari; IDOM Consulting, Engineering, Architecture SAUk landu du hori, Mercedes Benz enpresaren ordezkariak eskaturik, eta 2021eko irailaren 28an aurkeztutako azken dokumentazioaren arabera.

2. Aldaketaren inguruko agiriak eta ingurumen-azterketa estrategikoa jendaurrean jartzea eta horren berri ematea, ALHAOean eta probintzian zabalkunderik handiena duen egunkarian edo egunkarietan iragarkiak argitaratuz, edozein erakundek edo interesdunek agiriak aztertu eta 45 egun balioduneko epean egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan.

3. Hasierako onespeneren berri ematea sektorean eskumenak dituzten administrazio publikoei, administrazio batzarrei baldin eta horien eremuari eragingo balie, eta baita interesdunei ere.

4. HAPOaren egiturazko aldaketa azaltzeko saio publiko bat antolatzea eta Plangintzarako Aholku Kontseiluari eskatzea hori buruzko txostena egin dezan jendaurreko erakustaldia egin bitartean.

5. URA-Uraren Euskal Agentziari txostena egin dezan eskatzea, Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7.k) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Dosierra Gasteizko Udaleko Plangintzarako eta Hirigintza Antolakuntza Gauzatzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko azaroaren 5ean

*Alkate-lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**